

Izadi
LORADENDA

- Loreak
- Landareak
- Lore lehorrak
- Ezkongai sortak
- Etxez etxeko zerbitzua.

San Juan kalea, 1 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)
☎ 943 20 33 29

IGNACIO ZULOAGA Zortziko handian zein txikian irakaskuntza euskaraz.
BATXILER INSTITUTUA

TELEPIZZA
el secreto está en la masa

20 89 89
SAN JUAN, 15

GARATE Grabatuak
ELEKTROHIGADURA - INDUSTRIARAKO
MARKAKETA TRESNAK
ESKULAN

Aldatze, 3-behea - EIBAR Tel.: 943.70.24.05 - Faxa: 943.70.24.05

SAN ANDRES ESKOLA

Haur eta Lehen hezkuntza

Urte berri on !!

EIBARKO
J.A. MOGEL IKASTOLA

Kalitatezko hezkuntza
**LEHEN, ORAIN
ETA GERO**

Mendiola Balle, 29 - Tel.: 943 20 84 87

MOGEL-ISASI BHI

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Eredu bakarra:
Guztiz euskalduna


Tel.: 943 20 30 94 - Isasi 37, EIBAR

Eibar

Javier Mediavilla ■■■ Eibarko Udaleko zinegotzia

«Eibar-Gasteizek onurak ekarriko ditu»

Industriari eta herritarrei mesede egingo omen die autobideak ■ Gainerakoan, hirigintzan lan andana egin da Eibarren



IRATI AGIRREAZALDEGI

■■■ Javier Mediavilla, Eibarko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia.

■ Eibarko kaleak obretan dau dela ikusi dugu azkenaldian. Zer dela eta hainbeste lan?

Hirurogeiko hamarkadan etxebizitza asko egin ziren Eibarren kanpotik zetorren jendea hartzeko, baina urbanizazioa ez zen behar bezala zaindu. Beraz, denborak aurrera egin ahala herria urbanizatu beharra zegoela ikusi genuen, eta sekula bukatzen ez den lana da.

■ Untzaga plaza Eibarko sinboloetako bat da. Erabat berritu duzue aurten.

Herriko erdigunean libre geratzen den leku bakarra da Untzaga. Beraz, lehiaketa bidez hautatuta, Eduardo Artamendi arkitekto eibartarren plangintza aurrera eramatea erabaki genuen. Udalak ez ezik, herritarrek ere gogoz hartu zuten Artamendiren ideia.

■ Zertan aldatu da Untzaga?

Parke bat eraikitzen dihardugu; harmaila handiak izango dira bertan, eta atzeko partean, Justizia Jauregia. Bestalde, Zahar Etxea ere parke horretan egongo da. Aisialdirako leku bat egitea da asmoa.

■ Udaletxeko obrak noizko amaituko dira?

Ia 100 urte dituen eraikuntza da udaletxea, eta urte hauek guztietan ez da konponketarik egin; beraz, konponketak behar zituen, segurtasun arrazoiengatik batik bat; lanak, baina, geldirik egon dira denbora luzean, eta ez dakigu noiz amaituko diren.

■ Eskailera mekanikoak ere aurtengo berrikuntza izan dira, ezta?

Eibarren orografia kontuan hartuz, ikusi daiteke mendi zulo batean sartuta dagoela, eta auzoak mendi hegaletan daude. Arazo horri aurre egiteko, Udalbus zerbitzua jarri zuen Udalak goialdeko auzoetara joateko. Baina, Bartzelonara bidaiia egin ostean, Eibarren eskailera mekanikoa egitea interesgarria izan zitekeela iruditu zitzaigun. Zailtasunak izan genituen, baina fidagarria dela ziurtatu ziguten, eta ideia ongi ateratu da.

■ Arrakasta izan omen dute.

Bai, hala da. Ez dakit berriak direlako edo zergatik izan den, baina lehenengo eskailera jarri genituen, eta arra-

kasta izugarria izan dute, eta orain gehiago ipintzeko asmoa dugu. Irispide zaila edo neketsua duten auzoetara joateko eskailera jartzea da gure nahia. Arazo bakarra haurren bihurrikeriekin izan dugu. Eskailera mekanikoek botoia daukate blokeatzeko, segurtasun neurri moduan, eta haurrek sarritan botoi horri eman eta blokeatu dituzte.

■ Errepideetan ere berrikuntzak ez dira falta izan aurten.

Saihesbideak Jaurlaritzak egin zituen, eta herri barruko trafikoa arindu du. Orain, Maltzaga eta Azitain arteko errepidea zabaltzen ari dira. Izan ere, ez zegoen oinezkoentzako bazterbiderik, eta berrikuntzekin, errepidea zabaltzeaz gain, oinez lasaiago ibiltzeko aukera izango da bide zati horretan. Bestalde, Eibar-Gasteiz autobideko obrak ere udan hasi zituzten, eta hori eibartarrentzat berri pozgarria da, aurrerapauso garrantzitsua izango delako.

■ Zein onura ekarriko dizkio Eibarri autobide horrek?

Gasteizerako joan-etorriak errazteaz gain, industriaren-